

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2015

Joan zen uztailaren 20an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onetsi zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen ekonomia-finantza jardueraren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz ezin eman izan duen iritzirik Berariazko Geldikinaren zuzentasunaren gainean (70,8 milioi euro), zeinaren atal bat Gastu Orokorretarako Geldikintzat hartu behar litzatekeen, ez eta Bibliografia Funtsen saldoaren gainean ere, kontularitzan 23 milioi euroren balio garbia duena.

Finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak adierazi du sarrera arruntei bere horretan eutsi eta gastu arruntak gehitu izanaren ondorioz, emaitza arrunt positiboak behera egin duela 2014koarekiko. **Zorpetzeak berriz egin du behera** 2015ean, bosgarren urtez jarraian. Azken **ekitaldietan transferentzia eta diru-laguntzek eragindako diru-sarreraren murrizketak** EHUren inbertsio gaitasuna nabarmen urritu du. Epaitegiak ondorioztatu du inbertsioak etorkizunean egin ahal izatea finantzaketa eskuratzeko gaitasunaren baitakoa dela, bai kapitalezko diru-laguntza bidez, bai berriz ere zorpetuta.

Txostenak, gainera, adierazi du 2015eko aurrekontuaren likidazioak **oreka eta iraunkortasun printzipioak betetzen dituela**, bertako Urteko Kontuetan jasotako informazioaren arabera.

Txostenak ondorioztatu du Unibertsitateak zuzentasunez **bete duela** 2015ean ekonomia-finantzazko jarduera arautu duen **lege arautegia**; alabaina, **zenbait ez-betetze** azaleratu dira bai **Langileen Gastuen** alorrean (irakasleei arautegian aurreikusi gabeko kontzeptuengatik 681.254 euroren ordainsariak ordaintzea eta aldi baterako lan kontratua duten irakasle eta ikertzaileentzat Unibertsitateen Lege Organikoak ezarritako irakasleen plantillaren % 40ko muga gainditzea), bai **Administrazioko Kontratazioan** ere (3,1 milioi euroren gastuak, oker kontratu txiki modura edo publikotasunik gabeko negoziatu modura izapidetu direnak eta 7 espedientetan urteko aurrekontu gehienekoa edo esleitutako zenbatekoa gainditu izana).